

## erdiko kainera

Literatura

Mikel  
Ibarguren

Durangoko Azokako atea zabalduko dira aurki. Badira literatur azokaren paretetik harago ibilitako poetak, kartzelako barne paretak ukitu dituztenak. Ihes egin zutenak. Mikel Ibarguren (Zestoa, 1967) da horietako bat. Herritik ihes egin zuen eta itzuli-mitzulika dabil oraindik ere, bere labirintoan bizi da. Bere *Obabak* bizi du, bere zauriak poesiaz lotuz.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

## «Ez nagoen lekukoa nauk»

“NIRE *OBABA ZESTOA* HUAN. Hoge urtera arte apenas urruntzen gintuan Urola ibaia-  
ren ertzetik. Donostiara eta Bilbora irtetea  
beste mundura joatea huan. 1987an gutun  
bat jaso nian eta Ceutara joan behar izan  
nian, soldaduskara. Lehenbiziko zartakoa  
hark eman zidan, hura izan huan lehen  
deserrotzea. Deserrotzea sentitu dud  
bakoitzean poesiara jo diat” diosku Mikel  
Ibarguren.

1991n herritik ihes egin zuen. Preso hartu  
zuten. Fresnes eta Soto del Real espetxeak  
ezagutu zituen. Estraditua izan zen. Libre  
atera zen. Bolada batera –bere aurkako kar-  
gurik ez zegoela uste bazuen ere– Martutene  
ezagutu zuen, baita Valdemoro eta Caraban-

chel ere. Anartean, Kontxi neska-laguna-  
rengana itzuli zen Ziburura. Mikel estradita-  
tu zutenean neska-laguna Normandiako  
Dieppen konfinatu zuten. Kontxik kanppo-  
ratze agindua sinatua dauka oraindik ere.  
Enaitz eta Arhan seme-alabekin bizi dira.  
Sustraiak bota beharrean bizi dira, baina  
ihesari lotuta biziko bailiran.

Mikelek dagoen tokiko erreferentziak  
–mendia eta itsasoa– behar ditu, Urola  
arroan utzi zuen paradisua aurkitzeko:  
“Beste nonbait bizitzen asmatu behar izan  
diat. Horretarako sustraiak bota beharra  
zeukat, baina nik sorterriko minak soinean  
daramatzat. Min horrekin bizitzen ikasi  
diat edo ikasi beharrean segitzen diat”.

Sarrionandiaren *Kartzelako poemak* liburuko *Preso egon denaren gogo*a heldu zaidak gogorra. Presoa jujearekin gurutzatzen duk beti.

2001ean, Egin Irratira joatera ausartu ninduan –poesiaz jardutera– eta poliziak atxilotu eta “bilatze eta atxilotze” agindua zuela Baltasar Garzon juezaren aurrera eraman ninduan. Gabonetako gau zaharra Martutenean pasa nian. Garzonek ikurrin-afixa zeukan bulegoan, afixan bere burua itu eta jomuga ageri huen. Oso urguilutsua duk, garaikurra bezala jarria dik paretan: “¿Usted ha sido detenido alguna vez?”. “Sí”. Abokatuak: “Pero está absuelto. Le han detenido porque aparece en busca y captura”. Garzonek: “Ah, todavía lo tengo activado!?”. Ordenagailua manipulatu eta: “Se puede marchar, esta libre” esan zidan.

Mikel Iburguren poeta zestoarra. Hendaiaiko Sokoa lantegian behargin. Xabier Leteren “Ni naiz kaleetan zehar neguko eguzkitan lanera dijoan gizon bakartia” heldu zaidak gogora orain.

Langilea bai. Tapizgintzan, aulki muntaian... Gaztetatik lanean jardun diat, langile sentitzen nauk. Nire inguruko mintzagaiak futbola eta pilota dituk... Lankideek “poesia idazten duk?” galdetzen zidatek. Poesia eta literatura oso era pertsonalean bizi ditiat. *Bixio* arraroa nauk, idazle klandestino.

Langile eta poeta...

Lana lana duk: beharra. Idazteak bizitzeko arnasa ematen zidak. Poesia norberaren burua ezagutzeko introspekzio modua duk. Itsasoaren antzekoak gaituk, ur azala eta hondoa ditiagu, barruan sartzea eta esploratzea duk nire beste beharra, hori landuz gero ateratzen diat burua airera nolabait.

Ikasle txarra izan huan poeta.

Ikastolan ikasia, baina gazte-gazterik lanean hasia. Loiolako Ikastolako hirugarren promozioa nauk. Gure garaiko neska-mutirik ez genian ikasteko gogorik, edo nire koadrilakoek behintzat, piper egiten oso onak gintuan. Ikastolak eman didan hoberena lagunak dituk. Heztea eta ikastea kalean egin genian bereziki. Nik, kaleaz gain, osaba-izeben baserriko mundu utopikoa ezagutu nian, mundu desiragarria. Hogeitaka urte joan dituk eta niretzat hura duk zorionaren mundua oraindik ere.



“Dena *des* egiten zaidak: desmaitatzea, deslekutzea, desjabetzea, desordutan bizi-zea. Deserrotzearen ondorio logikoa da. Nire kokaleku txiki hartatik, *Obaba* hartatik, at sentitzen nauk. Errotua eta arrotza sentitzen nauk aldi berean”

Alabaina, geroago Euskal Filologia ikasi huen Fresnesen. Letren lanbidea ez duk ofizio bihurtu ordea. AEKn irakasle aritu haiz, esaterako, baina...

Poesia naturalki bizi diat, ez zaidak inoiz letren mundura jauzi egitea eta ogibide bilakatzea bururatu. Ez nintzatekek natural sentituko. Literatura jarraitzen diat, baina literatura mundua edo sistema beste unibertso bat duk niretzat. Ni, sortzearekin kontent.

Hartara *Hemen gauak lau ertz ditu* (Susa) sortu huen Fresnesen.

Herritik alde egin nuenean, sakoneko deserrotzea bizi izan nian. Ingurukoengandik alde egin behar izateak hurbildu ninduen literaturara, poesiara. Fresnesen sartu eta ezin nian eraman neska-lagunarengandik aldentzea. Espetxean hire buruaren presentzia behar duk, hori bilatzen duk. Gutunen bidez hasi ninduan hitzak lantzen eta gero poliki-poliki poemak sortzen. Barruan ego-

teak testuak irakurtzen eta sakonago lantzen laguntzen dik. Kanporako lotura eta ihesbidea aurkitu nizkian. Idatzitakoari forma eman eta Jose Luis Otamendiri pasa nioan.

Bien bitartean Soto del Realera estraditatu nindiaten. Liburua oso xumea duk, baina pauso handia izan huan niretzat: hasiberri baten poemak, esperientzia berebizikoa. Poemek kartzelako eremuaren

marka ditek, kartzelako ertzetaraino doaz, barruko mundu itxia ageriz. Atzean utzitako munduarekiko zerbait bilatu behar nian, zilbor heste bat, kontaktua kanpoarekin, neska-lagunarekin... Behin-behineko askatasuna topatzeko modua izan huan.

Handik zenbait urtera *Deserriko karrikak* (Susa) argitara eman huen. Kalean jada, Euskal Herrian, baina deserrian, antza.

Lehen liburua barruko erreferentziek markatu ziaten bezala, honetan Euskal Herrian negok, baina sorterritik kanpo. Beste hizkuntza bat aurkitu nian, frantseza, alegia. Deserria eta *des* guztiak barruan eramaten ditiat, sorterritik kanpo deserrian nago. *Deserriko karrikak*-en hementxo munduan kokatu nintzeneko modua azaltzen diat: karriketan, ostatueta, herrietan eta mendietan. Nagoen lekuan errotzeko saioa duk.

Lantokian: bizitzeko egin beharrean. Tokian tokiko lekuetan bizitzeko *desegin* beharrean. Bai. Dena *des* egiten zaidak: *deslekutzea*, *desjabetzea*, *desmaitatzea*, *desordutan* bizitzea. Deserrotzearen ondorio logikoa da. Nire kokaleku txiki hartatik, *Obaba* hartatik at sentitzen nauk. Errotua eta arrotza sentitzen nauk aldi berean.

### Zer bilakatu zaik poesia?

Igeri egiteko modua duk poesia, baita errotzeko modua ere. Bertakoa sentitzen nauk, hemengo girora egina nauk, lagunak egin ditiat. Hala ere, hori gero eta gehiago bizi arren, ez nagoen lekukoa naiz, ez nagoen lekuan bizi nauk uneoro. Batzuetan ez diat nire burua ezagutzen eta harritzen nauk.

“Ihes betea zilegi balitz, nonbait balego bakea, ni ez nintzake etxe ertzeko loredien maitalea” dio kantuak. Hik etxeko ertza utzi huen. Bakea aurkitu al duk?

Ez. Deserrotzearekin batean, ihesaren sentsazio bizia zera. Iparrorratza soinean eramango banu bezala, ihes puntu horretan bizi nauk, batzuetan jendearengandik ihes, beste batzuetan egoeretatik. Iparrorratza imana duk eta ni ere halatsu, ez nagoen lekura bide egin nahi diat. Batetik nire *Obaba* zegok, baina badiat ere errealitatetik alde egin beharra, bakegune hori bilatze beharra, ihes egin beharrean bizi nauk.

### Hire poemak itxi ez diren zauriak dituk.

Zauri dezente ditiat noski, eta poesia jostorraz modukoa duk, hitzak sentipen mingotsak ixteko hariak dituk. Eginak *deslotzeko* eta *deseginak* lotzeko erabiltzen ditiat hitzak. Poesiarekin bizitzaren ziklo bat itxi nahian hasi ninduan, baina oraindik ez diat itxi. Egunen batean zir-

**“Iparrorratza imana duk eta ni ere halatsu, ez nagoen lekura bide egin nahi diat”**

kulua itxiko ote dudan esperantzarekin bizi nauk.

### Ahapatik da hirugarren liburua. Zer duk zir-kulu horretan?

Espazioek markatuta zeudek lehen bi liburua, bi espazioak deserriak izaki. *Ahapatik* liburuan erreferentziarik, ingururik eta kokapenik gabe idazteko saiakera egin nahi nian, poesian beste pauso bat emateko asmoz. Asmatu dudan edo ez, ez zekiari. Aldi horretan, poeta frantsesak irakurtzen hasi ninduan, bestelako eraginak jaso nizekian, Paul Éluard edota René Char poetenak, esaterako. *Ahapatik*en ziur horien eragina ageri dela. Bestalde, barruan nengoela neska-lagunarekiko erreferentzia izan nian idazterakoan, gure arteko mundua –ni eta zu dialektikan– mundu osoa huan. Gero espazioa ireki huan eta orain zabalagoa duk, leku eta jende gehiago sartzen joan dituk. Alabaina, barne elkarriketari begira idazten diat oraindik ere.

### Lapurtu diaten zerbaiten bila ari haiz, antza.

Denbora kendu zidaten. Fresnesko patioak oso txikiak hituan, ibili ez nian espazioa eta lapurtu didaten denboraren bila nabilek, denbora eta espazio galdua berreskuratzeko ateratzen nauk karrikara, mendira... Tarteka hitzak aurkitzen eta idazten ditiat.

### 2007ko Irun Hiria Saria irabazi huen *Ahapatik* liburuarekin. Laster garaikurra jostozera joan beharko duk. Sokoa lantegitik Irungo udaletxera bide laburra duk.

Egia esan, saritua izateak *deszentratu* ninduan, *deskokatu*, ez nian espero. Garaikurraren bila joan behar diat, ekitaldia hila-bete honetan izaten duk. Dilema hori bizi diat: joan ala ez joan. Agian, berriz ere, arriskuan jartzen diat nire burua. ■

